

**INGURUMENEN TOKIKO FOROAREN ACTA DE LA REUNIÓN DEL FORO LOCAL DE
BILERAREN AKTA (23.04.25) MEDIO AMBIENTE (25.04.23)**

INGURUMENEN HIRI ZERBITZU ETA CONCEJAL DE SERVICIOS URBANOS
INGURUMEN KALITATE ZERBITZUA ZINEGOTZI AMBIENTALES Y CALIDAD AMBIENTAL:
ARDURADUNA: D. JOSEBA ARREGI
JOSEBA ARREGI jn.

HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZU ARLOKO CONCEJALA DEL ÁREA DE INFRAESTRUCTURAS,
ZINEGOTZIA: OBRAS Y SERVICIOS:
D^a JANIRE OCIO
JANIRE OCIO and.

INGURUMENEN TEKNIKARIA: TECNICO DE MEDIO AMBIENTE:
D. JOSU ATEKA
JOSU ATEKA jn.

FOROKO IDAZKARIA: SECRETARIA DEL FORO:
D^a ARANTZA CABEZA
ARANTZA CABEZA and.

ZERBITZU TEKNIKOEN SAILA-ZERBITZU ÁREA DE SERVICIOS TÉCNICOS-
INFRAESTRUCTURA SERVICIOS.
AZPIEGITURA D. KEPA SACRISTÁN
KEPA SACRISTÁN jn.

AHOLKULARIA: CONSULTORA:
D^a EUGENIA ATIN and.
EUGENIA ATIN and.

BERTARATUTAKOAK: ASISTENTES:

KARMELE URQUIJO and. (Gizatiarreko ordezkaria) D^a KARMELE URQUIJO (Representante de Gizatiar)
IÑIGO AZKARATE jn. (Trinitarias) D. IÑIGO AZKARATE (Centro escolar Trinitarias)
KOLDO NABASKUES jn. (Euskal Kontsumitzaileen Asociación de Personas Consumidoras y Usuarías Vasca)
Alkarteko ordezkaria) D^a YENNY MEDRANO (Representante de Getxo
YENNY MEDRANO and. (Getxo Enpresako Enpresa)
ordezkaria), JOSERRA OTEGI jn. (Ekologistak D. JOSERRA OTEGI (Ekologistak Martxan)
Martxan) D. EMILIO MARTINEZ (Centro escolar Julio Caro
EMILIO MARTINEZ jn. (Julio Caro Baroja) Baroja).
JOKIN CORTEZOR jn. (Argia Fundazioa) D. JOKIN CORTEZOR (Fundación Argia)

Honako hauek ezin etorria azaldu dute: Excusan su no asistencia:
JUANJO QUIÑONES jn. (Urtealaiakeko ordezkaria), D. JUANJO QUIÑONES (Representante de Urtealaiak),
XABIER BUENETXEA jn. (Ingurumen gaitan ospe D. XABIER BUENETXEA (Persona de reconocido
handia duen pertsona), TXARO ARCENIEGA and. prestigio en Medio Ambiente), D^a TXARO ARCENIEGA
(Basozaleakeko ordezkaria) eta JAVIER LOIDI jn. (Representante de Basozaleak) y D. JAVIER LOIDI
(Unibertsitate munduko pertsona). (Persona del mundo de la universidad).

Getxon, 2023ko apirilaren 25ean, arratsaldeko zazpitan En Getxo, a 25 de abril de 2023 se reunió a las diecinueve
bildu da Getxoko Ingurumeneko Tokiko Foroa, eta horas de este día el Foro Local de Medio Ambiente de
arestian aipatutako kapitularrek parte hartu dute. Getxo, con asistencia de los capitulares reseñados.

GAI ZERRENDA

ORDEN DEL DÍA

Bileraren hasieran Eugenia Atinek adierazi du Foroko zenbait kidek ezin etorri izana adierazi dutela.

1.- Bertaratutakoak aurkeztea

Aurkezpen-txanda egin da, eta ordezkari bakoitzak bere izena eta ordezten duen elkarte edo erakundea adierazi du. Ongi etorria eman zaie kide berriei: Joserra Otegi (Ekologistak Martxan), Celia Marañonen ordezkari, eta Jokin Cortezor (Argia Fundazioa)

2.-2023ko otsailaren 7an egin ziren Ingurumeneko Toki Foroko bilkurei dagozkien aktak onestea.

Aho batez onetsi da akta.

3.- 2030 Agendako (2020-2023ko) Ekintza Planaren gauzapean jarraipena.

Eugenia Atinek adierazi du aurreko bileran utzi genuen gaiarekin jarraituko dugula, hau da, baliabideen balio naturalei eta erabilera jasagarriari lotutako ildo estrategikoetan jasotako ekintzen berrikuspenarekin. Tokiko Agenda 2030aren ekintza-planak 66 ekintza hartzen ditu barne, eta berrikusteke geratu zitzaizkigun 32 ekintzak aztertuko ditugu gaur.

Aurreko bileran, azaldu zen planaren betearazpenaren azken ebaluazioa egin dela udaleko teknikariek inprimenduak erabiltzeko bidez. Elkarrizketa horietan, ekintza bakoitzaren betearazpen-egoerari buruzko balorazio kualitatiboa egin da.

Jarraian, ekintza guztien errepea egin da eta aldi honetako lorpen nagusiak azaldu dira. Eztabaida sortu duten alderdiak jaso dira jarraian. Zehaztasun gehiago jaso nahi izanez gero, erantsitako ebaluazio-txostena aztertzea gomendatzen da.

Horrenbestez, berrikuspenari ekingo zaio eta **4. ildo estrategikoa** —balio naturalei, biodibertsitateari eta paisaiari buruzkoa— aztertuko da. Balio geologikoak ezagutzera emateari buruzko 4.1.2. ekintzari dagokionez, adierazi da jasota utzi dela hasiateko dagoela; izan ere, oraindik ez da ezer zehatzik egin nahiz eta jarritako karteletan informazioa eman. Ingurumen Arloak Turismo Arloarekin lan egiteko asmoa du, flyschari buruzko kartelak egiteko.

Azkorri inguruan apo lasterkaria babesteko lanei buruzko 4.1.4. ekintzari dagokionez, Josu Ateak esan

Al comienzo de la reunión, Eugenia Atin excusa la no asistencia de algunos miembros del Foro anteriormente citados.

1.- Presentación de las personas asistentes

Se realiza una ronda de presentación donde cada representante indica su nombre y la asociación o entidad a la que representa. Se da la bienvenida a dos nuevos integrantes: Joserra Otegi de Ekologistak Martxan que sustituye a Celia Marañon y Jokin Cortezor de Fundación Argia.

2.- Aprobación del acta correspondiente a la reunión del Foro Local de Medio Ambiente, celebrada el 7 de febrero de 2023.

Se aprueba el acta por unanimidad.

3.- Seguimiento de la ejecución del Plan de acción de Agenda 2030 (2020-2023)

Eugenia Atin explica que en la sesión de hoy continuaremos donde lo dejamos en la anterior reunión, es decir, la revisión de las acciones de las líneas estratégicas relativas a los valores naturales y la utilización sostenible de los recursos. El Plan de Acción de Agenda Local 2030 se compone de 66 acciones y hoy veremos las 32 que nos quedaron por revisar.

En la reunión anterior ya se explicó cómo se ha realizado la evaluación final de la ejecución del Plan a través de entrevistas con los técnicos y técnicas del Ayuntamiento. Durante las entrevistas se ha realizado una valoración cualitativa del estado de ejecución de cada una de las acciones.

A continuación, se hace un repaso de todas las acciones de las líneas estratégicas 4 y 5, destacando los principales logros del periodo. Se señalan a continuación los aspectos que suscitaron el debate y se aconseja analizar el informe de evaluación adjunto para un mayor detalle.

Se continúa la revisión por tanto de la **línea estratégica 4** de valores naturales, biodiversidad y paisaje. Con relación a la acción 4.1.2 sobre dar a conocer los valores geológicos, se señala que se marcado como pendiente de inicio porque no se ha hecho nada específico todavía a pesar de que sí que se da información en los carteles que se han instalado. El Área de Medio Ambiente tiene intención de trabajar con Turismo para hacer cartelera específica del flysch.

En la acción 4.1.4. relativa a las labores de protección del sapo corredor en la zona de Azkorri, Josu Ateka comenta

du babes bereziko espeziea dela eta espero dugula aurten asko areagotzea populazioa, errunaldia laukoiztu baita (lehen 10ekoa zen eta orain, berriz, 40koa). Uda honetan, are gehiago babestu behar ditugu eremuak eta putzuak bainulariengandik, eta ahalik gehien mugatu behar dira hondartzako jarduerak eta ekitaldiak.

Bolue haranari dagokionez, 4.2.1. ekintzaren harira, Josu Atekek azaldu du Maracanaren atzean dagoen putzua sasiz garbitu dela eta oso ondo geratu dela. Iñigo Azkaratek mantentze-lanei buruz galdetu du, oso zaila izan zela baitaki. Josu Atekek erantzun du putzua sasiz garbitzeko obra egin duela URAk eta orain udalaren ardua dela sasiz betetzea ekiditea; halaber, jakinarazi du badaukatela mantentze-lanetarako aurrekontua. Ziztu bizian hazten ari da lezka. Joserra Otegi uraren sakonerari buruz galdetu du, eta teknikariak erantzun du ur-lamina metro batera heldu daitekeela, gutxienez 30 cm. Hegazti berriak agertu dira jada.

Igarobide ekologikoari buruzko 4.2.2. ekintzari dagokionez, Kepa Sacristánek esan du lanean ari direla hiriko ingurumen-aberastasun handia sortzeko eta, hartara, berrehun ale baino gehiago landatu dituztela Iturribarrin, baita ezponden 54 espezie autoktono ere; hala, denborarekin (hamabost-hogei urte barru) masa hostotsua egongo da, "Y" formako baso-eremua eratuko duena.

Anfibioentzat gune umelak gaitzea barne hartzen duen 4.2.3. ekintzari dagokionez, azaldu dute herritarrak kontzientziatu beharra dagoela; izan ere, esate baterako, sortu diren idoia suntsitu dituzte. Idoi gehiago sortu nahi dira, baina hezkuntza ere landu behar da.

Informazio-kanpainei buruzko 4.3.3. ekintzari dagokionez, Emilio Martínezek karramarroagatik galdetu du. Josu Atekek azaldu du karramarro gorri ugari daudela baina horrek ez duela inolako mehatxurik eragiten eta, gainera, arrantzatu daitezkeela. Apoarmatuei dagokionez, jendeak kontzientziatzio gehiago erakutsi du hezeguneetan animalia exotikorik ez uzteari dagokionez; izan ere, apoarmatu exotiko gutxiago eta apoarmatu europar nahiz legenardun gehiago daude, eta azken horiek dira autoktonoak direnak.

Landare inbaditzaileei dagokionez (4.3.4. ekintza), Kepa Sacristánek jakinarazi du lorezaintza-zerbitzuak hiri-ingurunean ere jarduten duela gehien hedatzen diren eta desagerrarazteko oso zailak diren hiru espezieekin (*fallopia* da zailena).

Azpiegitura berdeei buruzko ekintzaren harira (4.3.5. ekintza), Kepa Sacristánek esan du asko dagoela argitzeke, barne hartzen dituen azpiegituretan hainbat administrazio eskuek hartzen dutelako. Dena aztertzen ari

que se trata de una especie de especial protección y que este año tenemos la esperanza de aumentar mucho la población porque se han cuadruplicado las puestas (de 10 a 40). Este verano debemos proteger aún más las zonas y balsas de los bañistas y limitar al máximo las actividades y eventos en la playa.

Pasando al valle de Bolue, en la acción 4.2.1, Josu Ateka comenta que se ha descolmatado la balsa que queda detrás del Maracaná y que ha quedado muy bien. Iñigo Azkarate pregunta por las labores de mantenimiento ya que le consta que es muy dificultoso. Josu Ateka responde que efectivamente, URA ha hecho la obra para descolmatar la balsa y que ahora es el Ayuntamiento quien tiene que evitar su colmatación y cuenta con un presupuesto de mantenimiento. El carrizo crece a toda velocidad. Joserra Otegi pregunta por la profundidad del agua y el personal técnico responde que la lámina de agua puede alcanzar 1 metro, mínimo 30 cm. Ya han aparecido nuevas aves.

Kepa Sacristán señala en la acción 4.2.2. del corredor ecológico, que se está trabajando en generar una gran riqueza ambiental urbana plantando más de 200 ejemplares en Iturribarri y 54 especies autóctonas en taludes, que con el tiempo (15-20 años) se verá como una masa frondosa creando una "Y" de zona boscosa.

En relación a la acción 4.2.3. sobre habilitar zonas húmedas para los anfibios se explica que hay que concienciar a la ciudadanía porque por ejemplo las charcas que se han generado se han vandalizado. La intención es crear más charcas pero hay que educar también.

En la acción 4.3.3 de campañas de información, Emilio Martínez pregunta por el cangrejo. Josu Ateka explica que efectivamente hay mucho cangrejo rojo pero que no supone una amenaza, además se pueden pescar. Con respecto a los galápagos, al parecer la gente está más concienciada con no abandonar en el humedal animales exóticos porque hay menos galápagos exóticos y hay más galápagos europeos y leprosos, que son los autóctonos.

En el apartado de plantas invasoras (acción 4.3.4), Kepa Sacristán comenta que el servicio de jardinería también actúa en el entorno urbano con las tres especies más extendidas y que son muy difíciles de erradicar, siendo la *fallopia* la más complicada.

En la acción sobre infraestructuras verdes (acción 4.3.5), Kepa Sacristán indica que hay mucho de dilucidar puesto que esta acción hace referencia a infraestructuras donde intervienen diferentes administraciones. Se está estudiando

dira eta aurrerapausoak eman dira, baina zailtasun ugari dauzkan ekintza da. Malakateei dagokionez, esate baterako, esan du Kalamua kalekoa Getxoko malakate bakarra dela, gainerakoak Bilboko Udalekoak baitira.

Bide-sare bat sortzeari buruzko 4.3.6. ekintzari dagokionez, Josu Atekek esan du bidea mozten zuten Bolueko hesiak kendu direla dagoeneko eta, hortaz, bide hori zabalik dagoela orain. Halaber, Martiartu eta Larrañazubi arteko bidea berreskuratu nahi da. Kepa Sacristánek esan du ezin dela galdu inbentario historikoa, hala nola ixten ari den Goienetxe estrata.

Karmele Urkijok adierazi du kopuruei erreparatuz gero dirudiela 4. ildo estrategikoan ez dela aurrerapen handirik egin, baina bere ustez asko aurreratu dela. Eugenia Atinek ere esan du ildo horretako ekintza batzuk "hasita" daudela adierazi dela baina "aurreratuta" daudela zehaztu beharko litzatekeela, errealistagoak izateko.

Jarraian, 5. ildo estrategikoa aztertu da, ingurumen-kalitateari eta baliabideen erabilpen jasangarriari buruzkoa.

Hornidura- eta saneamendu-sareei buruzko 5.2.1. ekintzari dagokionez, Kepa Sacristánek nabarmendu nahi du iaz lortu zela 600.000 m³ ur aurrezteaz azken zortzi urteotan egin diren lanei esker. Sektoretan zatitu da sarea (orain hamahiru sektore daude), arazoak isolatzeko, ihesak hobeto identifikatzeko, eta presioak murrizteko xedearekin. Gaur egun, tentsio txikiagoko sarea daukagu: Algortako gune batzuetan 9 kiloko presioa zegoen lehen eta orain, berriz, 6 kilokoa. Matxura gutxiago daude eta, ondorioz, aurrezpen gehiago. Bestalde, uraren kalitatea bermatzen da Getxon. Las Uves plazako biltegian, ura koipegabetzen eta desondartzen da.

Koldo Nabaskuesek jakin nahi du nola sortzen den energia mikroturbinekin eta zenbat energia sortzen den. Kepa Sacristánek erantzun du korrante zuzeneko energia biguna sortu nahi dela eta, horretarako, diametro handiko ur-hodietan mikroturbinak jarri dituztela. Zirkulatzen den urak turbinak mugitzen ditu, eta horiek 23-18 kWh bitarteko energia sortzen dute. Energia hori, esate baterako, Areetako gaueko argietarako erabili daiteke (Lanbiden dauden turbinak erabiliz), bai eta ibilgailu elektrikoetarako (taxietarako) kargagailuak jartzeko ere. Aipatutako turbinek ez dute inpakturik sortzen emariaren presioan.

Joserra Otegi galdetu du zein den biztanle bakoitzeko ur-kontsumoa. Gutxi gorabehera, eguneko 270 litrokoa da biztanle bakoitzeko, baina hurrengo bileran emango da datu zehatza.

todo y dando pasos pero es una acción que entraña muchas dificultades. Con respecto a los malakates, por ejemplo, señala que el de Peña Santamarina es el único Malakate de Getxo, el resto son del Ayuntamiento de Bilbao.

Con relación a la acción 4.3.6 sobre crear una red de senderos, Josu Ateka señala que ya se han eliminado las vallas en Bolué que impedían el paso así que ya está abierto este sendero. Se tiene también intención de recuperar el sendero entre Martiartu y Larrañazubi. Kepa Sacristán apunta a la necesidad de no perder el inventario histórico como puede ser la estrada de Goienetxe que se va cerrando.

Karmele Urkijo señala que la línea estratégica 4 parecía por los números que estaba menos avanzada pero que le parece que está bastante avanzada. En efecto, Eugenia Atin coincide en que quizás en esta línea se han marcado algunas acciones como "iniciadas" cuando en realidad deberían ser "avanzadas" para ser más realistas.

Seguidamente, se analiza la **línea estratégica 5** relativa a la calidad ambiental y utilización sostenible de los recursos.

Kepa Sacristan quiere resaltar en la acción 5.2.1. de redes de abastecimiento y saneamiento, que el año pasado se consiguió un ahorro de 600.000 m³ de agua gracias a las labores que se han venido llevando a cabo estos últimos 8 años. La red se fue dividiendo en sectores (ahora hay 13 sectores) de manera que se pudieran ir aislando los problemas, identificando mejor las fugas y reduciendo presiones. En la actualidad tenemos una red menos tensionada donde se ha pasado de 9 kilos de presión en algunas zonas de Algorta a 6 kilos. Hay menos averías, más ahorro. Por otro lado, Getxo es garante de la calidad de agua. En el depósito de las Uves se desengrasa y se desarena el agua.

Koldo Nabaskues se interesa por saber en qué consiste la generación de energía con las microturbinas y cuánta energía se genera. Kepa Sacristán responde que se trata de generar energía limpia en continua, gracias a la colocación de microturbinas en los conductos de agua de gran diámetro. El agua que circula mueve las turbinas que generan entre 23 y 18 kWh. Esta energía se puede usar por ejemplo para el alumbrado de noche en Areeta (con las turbinas en Lanbide) o para poner cargadores de vehículos eléctricos (taxis). Estas turbinas no impactan sobre la presión del caudal.

Joserra Otegi pregunta por el consumo de agua por habitante. Es de aproximadamente 270 litros por habitante y día pero el dato exacto se facilitará en la siguiente reunión.

Hobari bidez birziklatzeko beste sistema bat ezartzea barne hartzen duen 5.3.2. ekintza ez da egingo, arau-esparruaren eragin handia baitauka. Ez da une egokia.

Hondakin-kudeaketari buruzko sentsibilizazio-kanpainen ekintzari dagokionez (5.3.3. ekintza), Koldo Nabaskuesek galdetu du ea enpresekin akordioaren batera heltzeko aukerarik dagoen plastikozko botilak itzultzeari dagokionez, Europako beste herrialde batzuetan egiten den bezala. Orain arte, Ecoembesek zeukan monopolioa; alabaina, hondakinen legearen ondorioz, liberalizatuko da eta ikusteke dago zer gertatzen den.

Udalerriko zirkulazioari buruzko 5.4.1. ekintzari dagokionez, Kepa Sacristánek esan du airearen kalitatearen mapa egiteko ardura adjudikatuko dela laster, ondoren Getxoko isurketa gutxiko gunek zehazte aldera.

Hasteke dagoen beste ekintza bat 5.3.4 zenbakiduna da, autokonpostatzeari buruzkoa. Prestakuntza eskaini nahi da aurtan, banakako autokonpostatzea (erkidegokoa ez dena) egin nahi dutenek segurtasunez egiteko aukera izan dezaten; izan ere, osasunaren aldetik, animalien hondarrez eginez gero arriskutsua izan daiteke. Horiek horrela, Emilio Martinezek esan du Uribe Kostan duela urte ugari ematen zela prestakuntza hori eta konpostagailuak ematen zirela.

Kepa Sacristánek argiteria publikoari buruzko 5.5.1. ekintza zuzendu du; izan ere, aldatu beharreko bola-formako kale-argiak ez dira zortziehun, orain 495 bola bakarrik daude aldatzeko eta horien ordez LED jartzeko.

Udal-erakinen energia-ziurtagiria hobetzei buruzko 5.5.3. ekintzari dagokionez, Iñigo Azkaratek esan du jakin nahi duela ea udal-erakinetako baten bat energetikoki independentea den. Kepa Sacristánek zehaztu du eraikin- eta erabilera-motaren arabera aldatzen direla aplikatzen diren zehaztapenak (Eraikintzaren Kode Teknikoa). Lantaldeetarako den Aiboako eraikina industria-erakin gisa kalifikatuta dago eta, hortaz, energetikoki independentea izango da. Ingurumen Gelak eguzki-energia izango du (aeroterminia dauka orain), eta geotermia dago bai Turismo Arloan, bai Muxikebarrin.

Koldo Nabaskuesek galdetu du ea udal-ibilgailuei buruzko 5.5.4. ekintzan ere hidrogenoa erregai gisa baloratuko ote den. Ezetx erantzun diote: 2008tik 2011ra bitartean garrantzia eman zitzaion baina orain ez. Ibilgailu elektrikoek eta gas bidezko (GNK) ibilgailuen artean aukeratu beharra dago.

La acción 5.3.2. Implantación de un nuevo sistema de reciclaje mediante bonificación, no se va a realizar puesto que se ve muy influenciada por el marco normativo. No es el momento.

En la acción sobre campañas de sensibilización sobre la gestión de residuos (acción 5.3.3.), Koldo Nabaskues pregunta a ver si se puede promover o llegar a algún acuerdo con las empresas para el retorno de las botellas de plástico como hacen en otros países europeos. Hasta ahora Ecoembes tenía el monopolio pero con la ley de residuos, se va a liberalizar y ya veremos qué pasa.

En relación a la acción 5.4.1 sobre el tráfico del municipio, Kepa Sacristán señala que se va a adjudicar en breve la realización del mapa de calidad del aire para posteriormente poder identificar las Zonas de Bajas Emisiones en Getxo.

Otra de las acciones que está pendiente de inicio es la 5.3.4 relativa al autocompostaje. Este año se pretende dar formación para que las personas que quieran hacer autocompostaje individual (no comunitario) lo puedan hacer con seguridad puesto que es un tema que sanitariamente puede entrañar peligro si se hace con restos animales. En este sentido, Emilio Martínez señala que en Uribe Kosta hace muchos años ya realizaban formaciones y daban compostadores.

Kepa Sacristán corrige la acción 5.5.1. sobre el alumbrado público, puesto que ya no son 800 farolas de bola las pendientes de sustitución sino que solo falta cambiar 495 bolas a LED.

En la acción 5.5.3. Mejorar la certificación energética de los edificios municipales, Iñigo Azkarate quiere saber si alguno de los edificios municipales es independiente energéticamente. Kepa Sacristán señala que dependiendo del tipo de edificio (y sus usos) se aplican unas definiciones u otras (código técnico de la edificación). El edificio de Aiboa para las brigadas tiene calificación de edificio industrial y va a ser independiente energéticamente. El Aula Medio Ambiental va a tener energía solar (ahora tiene aeroterminia) y hay geotermia en Turismo y en Muxikebarri.

Koldo Nabaskues pregunta en la acción de los vehículos municipales (acción 5.5.4) si se valora también el hidrógeno como combustible. Se responde que no, que en 2008-2011 tuvo su burbuja pero que ahora ya no. Se apunta a eléctrico o gas (GNC).

Herritarren energia-efizientzia sustatzeari buruzko 5.5.5. ekintzari dagokionez, Kepa Sacristánek adierazi du Europako funtsak daudela tamaina jakin bateko obrak egiteko. Udal-eremuan, Emilio Martínezek esan du ibilgailu elektrikoek zirkulazio-baimenengatik hobariak ematen direla, zeinak pixkanaka jaisten baitira igarotako urte bakoitzeko. Bere ustez, beste mota bateko pizgarriak eman daitezke; esate baterako, Bilbon 75 euro ematen dituzte bizikleta bat erostearren.

Azkenik, antenen inbentarioari buruzko kontrastea jorratzen duen 5.6.1. ekintzaren harira, Koldo Nabaskuesek adierazi du urteak daramatzala ekintza hori gauzatu dadin eskatzen eta bere ustez ez dela horren zaila. Nolanahi ere, adierazi du antenen kontua aztertu zela aspaldi eta askotariko iritziak agertu zirela; alabaina, hogeitaz igarotako diru jada eta ez dago kezka bera. Hala eta guztiz ere, zarata-mapa egiten den bezalaxe uste du kutsadura elektromagnetikoaren mapa egin daitekeela. Kepa Sacristánek konpromisoa hartu du Ingurumen Arloa helarazteko udal-eraikinetan antenak instalatzeko emandako emakidak.

4.- Galde-eskeak.

Joseba Arregik agur esan dio foroari, ez baitu udalean jarraituko.

Foroaren hurrengo bilerarako deialdia mezu elektronikoko bidez egingo da, beti bezala.

20:50ean, bilera amaitutzat jo da.

Con respecto a fomentar la eficiencia energética por parte de la ciudadanía (acción 5.5.5), Kepa Sacristán indica que hay fondos europeos para acometer obras de cierta entidad. En el ámbito municipal, Emilio Martínez indica que el permiso de circulación de los vehículos eléctricos tiene bonificaciones que descienden gradualmente cada año que pasa. En su opinión, se podrían dar otros incentivos, como en Bilbao, por ejemplo, que dan 75 euros para la compra de una bicicleta.

Finalmente, en la última acción 5.6.1 sobre el contraste del inventario de antenas, que está pendiente de inicio, Koldo Nabaskues señala que lleva años pidiendo que se lleve a cabo esta acción y que no es tan complicada en su opinión. De todas formas, señala que el tema de las antenas tuvo su momento y que había posiciones muy encontradas en aquel entonces pero que después de 20 años la preocupación ya no es la misma. De todas formas, opina que, igual que se hace un Mapa del Ruido, se puede hacer un Mapa de la Contaminación Electromagnética. Kepa Sacristán se compromete a mandar al Área de Medio Ambiente las concesiones dadas para instalar las antenas en los edificios municipales.

4.- Ruegos y preguntas.

Joseba Arregi se despide del Foro puesto que no va a seguir en el Ayuntamiento.

La próxima reunión del Foro se convocará, como siempre, por correo electrónico.

A las 20:50 horas se da por finalizada la reunión.